


PuLunPe

145. ZeNBaKia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkia



**AGUR JAUNAK
ETA ANDREAK
AGUR T ERDI
DANAK BERDINAK
EINAK GIRE
ZUEK ETA
BAI GU ERE
AGUR JAUNAK
(E)TA ANDREAK
AGUR T ERDI
HEMEN GIRE
AGUR DANAK**



ZOZKETA MUNDIALA

(LAUGARRAREN ALDIA)

Izen deiturak: _____

Herria _____

Etxearen izena * _____

Noren alde * _____

Telefonia (1) _____

* hautazkoak. (1) kanpotarrak soilik

Zozketa mundiala 1€



- * 10 zerri gizen eta
- * 5 axuri
- * 22 bazkari
- * 23 gazta eta
- * beste sari anitz

Aurten laugarren aldiz antolatu dugu ZOZKETA MUNDIALA. Antolatu edo, hobeki erran, antolatzen ari gara, nahiz ia-ia presatuxe dugun.

Urtero bezala, sariak hobetzen ahalegindu gara eta berriz ere, aurreko urteetako sariak gehitu eta hobetu ditugu.

Sari printzipalenak, honako hauek izanen dira:

10 zerri gizen.

5 axuri

22 bazkari

23 gazta

Eta beste hainbat gauza gehiago.

Eta iaz bezala, sorpresaren bat ere izanen da, sari berezi-bereziren bat.

Hurrengo alean informazio gehiago emanen dizuegu.

Laster ikusiko gaituzue paretetan eta ostatueta jarriko ditugun karteletan.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan. Azala: Arantxa

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci. Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U - Lege gordailua: NA 721/93

2015EKO URRIAREN 2AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

LANDA EREMUKO EMAKUMEEN EGUNA: AGENDA

81 amama Dokumentalaren emanaldia
LARRAINTZARKO BENTAN
19.00etan URRIAK 16

ARGAZKI ERAKUSKETA:
Emakumeak elikadura-subiranotasunaren protagonistak. Kubatar eta euskaldunen bizipenak.
Urriaren 12tik 30 arte

-URRIAK 15. LANDA EREMUKO EMAKUMEEN EGUNA

-EMAKUMEEN MUNDO MARTXA

"CUIDANDOME IKASTAROA"
Emakumeendako tailerra, autoezagutzarako eta "emakume izateko" era berrikin experimentatzeko lan pertsonala egiteko helburuarekin. Bakoitzaren bizipenetan oinarritutako lana eta genero ikuspegia biltzen dira. Hausnarketaren bidez eta onarpenaren bidez zauriak sendatzera eta nor garen ezagutzera helduko gara.
12 sesioi. Urria-ekaina
Izena emateak: urriaren 6a baino lehen. Informazio gehiago: Gizarte Zerbitzuak. 948 30 53 53

"EMAKUMEAK ETA HELDUTASUNA IKASTAROA"
3 egun pasako gara mugitzen, gauzak mugitzen, bizitzen, gure jakinduria dena edo ez dena hausnartzen. Emakumea izateko modu ezberdinak... pertsona izateko moduak

Antolatutako ekintzetan parte hartzera animatzen zaituztegu: informazio gehiago Gizarte Zerbitzuetan.



BASANDEREOK TALDEAREN EGUTEGIA

ARGAZKIAK BIDALTZEKO
EPEA:
AZAROAK16
GAIA:
EMAKUMEEN EKIMENAK
ZURE ARGAZKIAK BIDALI
HELBIDE HONETARA:

esgaeki@gmail.com



MIKOLOGIA IKASTAROA




UDAZKENEAN
TXANGOAK ETA SAILKAPENA
OSTEGUNETAN LARRAINTZARREN
URRIAREN 8TIK AZAROAREN
26RA BITARTEAN
LARUNBATETAN IRURTZUNEN
URRIAREN 10ETIK AZAROAREN
28 BITARTEAN

IKUSI BIDEO HAU: "EUSKARAREKIN HOBEKI"



BIDEOA: "EMAKUME BASERRITARRAK"



Hasi da usoen **ehiza** denboraldia

Urriaren 1ean hasi zen, urtero bezala usoaren ehiza Nafarroan. Gurean ez dira uso asko erortzen, baina ehiztari aunitz ditugu. Iaz kudeaketaren inguruan izan zen gatazka, baina aurten konpondu egin dela ematen du.



Gogotsu zeuden gure ehiztariak urriaren lehenengo egunak uso ehizaren denboraldia ireki zezan. Iritsi da eguna, eta basoan dira egunotan. Ehiztari asko mugitzen du uso-ehizak; Ultzama aldean, ordea, leku batzuetan gutxi ibiltzen dira, eta, beraz, denboraldia eskasa izaten da. Hala ere xarma berezia dauka usoak, eta baskurde eta orkatzen denboraldiari jarraipena ematen dio hegazti migratzaileena.

Jendea mugitzen du ehizak, bai, eta baita dirua ere; eta, nola ez, honen kudeaketak liskarrak piztu ditu behin baino gehiagotan.

Iaz gatazka izan zen ehiztarien eta Nafarroako Gobernuaren artean. Gobernuak behartutako zaintza ezarri nahi zuen ehiza barruti guztietan, baina ehiztariak ez zeuden ados. Zer esan handia eman zuen gaiak, Nafarroan eta Euskal Herri osoan ere, eta ekologistak ere sartu ziren tartean. Interes ezberdinen talka sortu zen orduan, ehizaren gaiak jende asko ukitzen baitu: administrazioak, udalak, kontzejuek, ehiza-barrutien kudeatzaileak, ehiza federazioak, herrietako elkarteak, arma fabrikak, saltokiak...

Nafarroako ehiztarien batasunari esker, zaintza hautazkoa izatea lortu zuten, hau da, barruti bakoitzak erabakiko luke zaintza ezarri ala ez. Honela, ematen du iazko liskarrak konpondu egin direla aurtengo denboraldirako.

Hala ere, ehiztariak badituzte eskaera gehiago ere; Gobernuak ehiza komisioren parte hartzea bermatu nahiko lukete legez, eta informazio organoa izateaz gain hainbat eragileren iritzi eta eskaera jasotzekoa ere izan dadin eskatzen dute. Anueko Carlos Etxenike ehiztariak dioen bezala, "ehizaren kudeaketa egoki bat egiteko ehiztari, zaindari, nekazari, abeltzain eta abarren artean erabakiak hartu behar baitira".

Bailaraz bailara, kudeaketa ezberdina
Ultzaman, Atetzen, Anuen edo Imotzen ez dute era berean kudeatzen ehiza. Bailara bakoitzak bere eredu hartu du, eta diru kontuek sortzen dituzten arazoez gain, ematen du bestelako liskarrak baretu egin direla, nahiz eta azken urteotan izan diren.



Ultzaman, udaleko ehiza batzordea
Martin Pikabea ehiztaria da, eta EH Bilduko zinegotzia Ultzamako udalean. Garai batean ematen zuen, ekologismoa barnebiltzen zuten alderdi politikoak ehizaren aurka zeudela. EH Bilduk ekologiztatzea dauka bere burua, orduan kontraesankorra ematen zuen ehiztari bat zinegotzi izatea. Ez da, ordea, horrela izan, eta Ultzamako zenbait ehiztari esan digute udal berriak ehiza sozialaren aldeko apustua egiten duela, eta ehiza batzorde irekiak parte-hartze handia izan du.

Ehiztariak argi dute, haien ustez, edozein gobernuak ehiza soziala bultzatu beharko luke, gure gizartearen daukan errotzeagatik, eta ekonomikoki ere gure kontzejuek eta udalei ekarpen handia egiten dielako.

Ehiztari askok eman dute izena aurten Ultzamako barrutietan ehizatzeke, eta horregatik eremuen eta ordutegien banaketa egin behar izan dute. Bitartean, ehiza batzordeak biltzen jarrai-



tzen du, eta apustua zonaldeko ehiztarien elkarte bat sortzea da, Ultzamako Udalak esan digunez, hauek izan daitezkeen ehiza kudeatuko dutenak.

Anuen, bertako ehiztari elkarte
Ultzamak helburu duen formatua dauka Anuek. Bertako ehiztariak kudeatzen dituzte barrutiak, udalak eta kontzejuek haien esku uzten baitute ekintza zinegetikoa. Adibide kontrajarria Leazkue herrikoa da. Kontzejuek ez zuen bere lurretan ehizatzerik nahi, eta mankomunitatetik atera zen.

Izan ere, ehiztari askok dioten bezala, beraiek dira haien kabuz eta haien diruarekin populazioaren ikerketak, bideen garbiketa, ordenazio planak, hegaztien markaketa, migrazio kontrola eta abar luze bat egiten dituztenak.



Imotzen ere, Muskitz mankomunitatetik kanpo
Anueko Leazkuen bezala, Imotzeko Muskitzen ere herriak ez zuen bere lurretan ehizatzerik nahi, eta kontzejua mankomunitatetik ateratzea erabaki zuen. Hala ere, ez zen gatazka ekonomikoa izan, ehizarekiko jarrera bat baizik.

Ehiztariak eskaera egiten diete udal zein kontzejuei ehiza beste edozein ekintza bezala ikus dezaten, eta nahia izanez gero akordioak lor dai-

tezkeela azpimarratzen dute.

Atetzen 70 bazkideko elkarte
3183ha daude Atezko barrutietan. Duela 4 urte akordio bat lortu zuen elkarteak kontzejuek guztiekin barrutien konpetentzia elkarteara izateko, eta 10 urterako daukate ehizaren kudeaketa. Guztira 8.000 euro inguru ordaintzen dute ehiztariak, kontzejuek bakoitzari kopuru ezberdina, bakoitzak duen azaleraren arabera.


Hala ere, Pako Sarasibar ehiztariak dioen bezala, uso gutxi igarotzen da bertatik, baina 70 bazkide dira bertakoen eta bertakoekin ezkondu-takoen artean.

Ehiztarien eta ekologisten arteko liskarra, liskar amaiezina
Ematen du Nafarroako Gobernuarekin eta udal eta kontzejuekin sortu ziren liskarrak konpondu daudela aurten hasi den uso denboraldirako. Hala ere, betiko liskarra tartean, ehiztari eta ekologisten artekoa. Hau zailago da konpontzen, eskaerak guztiz kontrajarriak direlako.

Ekologistek, hala ere, ez dute esaten ehiza debekatu behar denik, "arrazionalizatu" baizik, eta eskumen gutxiago ematea ehiztariari, "azkenaldian industriaren eta ehiztarien interesak nagusi izan direlako, naturaren kalterako. Ingurumen sailaren esku balego, basa-fauna zorrotzago babestuko litzatekeela" uste dute.

Ehiztariak, ordea, euren jardueraren garrantzia azpimarratzen dute, faunaren kontrolerako eta basoen garbiketarako besteak beste, baita ekonomia eta lurralde garapenari dagokionean ere. Ados ez daude ehizaren afera batekin: barrutiak enkantean jartzearena. Ehiztari lokalek haien herrietan ezin dutela ehizatu diote enkanteak daudenean, kanpotarrek diru asko ordaintzen dutela, baina zikin uzten dutela basoa.

Zortzi gako esnearen egoeraren inguruan



1. KUOTEN DESAGERTZEA

Europar Batasunak kuoten sistema kendu duenetik, teorian abeltzainek nahi beste esne ekoizten ahal dute. Praktikan, ordea, markaren zein industriaren menpe dago ekoizpen kopurua, eta kopuru batetik aurrera, industriak abeltzainei produkzio gastuak baino gutxiago ematen die esne litroko.

Euskal Herrian mantendu egin da egoera, batzuen esanetan Kaiku, Lacturale edo Iparlat bezalako markak ditugulako, eta prezioak mantendu dituztelako. Industriak, hala ere, botere gehiago irabazi du abeltzainen aurrean.

2. EUROPAKO ESNE SOBERAKINA

Espainiako Gobernuak sinatuta zeukan kuoten sistema ezarri zenetik estatuan kontsumitutako esnearen %25-30 nazioartetik etorri behar zela. Prezio baxuagoan zetorren, jakina, eta marka handien babesean, Carrefour esaterako, espainiar merkatuaren zati handi bat kontrolatzen duena.



3. PRODUKZIO EREDU NEOLIBERALA

Ematen du esnearen lobbyek ezarri nahi duten eredia esplotazio handiarena dela. Lautadan, milaka behirekin, industriari erraztasunak jarritz, gastuak murriztuz, baita langileei murriztu behar bazaie ere, eta, noski, zonalde eta bizilagunekin bat ere loturirik gabekoa. Honelako adibideak Estatu Batuetan ditugu, eta baita gertuago ere, Caparrosen esaterako, Ziaurriztik eramandako enpresaren adibidea.

4. ERRUSIAREN AURKAKO ZIGORRAK

Ukrainar gatazkak aurrera egitean, Estatu Batuek Europar Batasuna behartu zuten Errusiaren aurkako zigorrak ezartzera. Kalte handia izan du

gure nekazari eta abeltzainengan. Errusiari saltzen zitzaion esnea soberakin bihurtu da Europan, eta prezio barregarrietan etortzen zaigu orain gazta bihurtuta bereziki. Gainontzeko prezioak jaistea eragiten du honek.



5. ESPAINIAKO DIRU-LAGUNTZAK

300 euroko diru-laguntzak iragarri zituen ministroak behi bakoitzeko, abeltzainek dirua galtzen bazuten. Hala ere ez dago deus sinatuta, ezta diru-laguntzen ezaugarriak zehaztuta ere, hau da, nori emango zaizkion. Ez luke sektorearen egoera konponduko, eta Galizian geratuko lirakeke soilik.

6. EUROPAKO DIRU-LAGUNTZAK

Europak ere milioikako diru-laguntza iragarri zuen, Espainiak nahi bezala kudeatzeko. Sindikatuen ustez, neurriok "negargarriak" dira, eta partxe bat jartzea baino ez da. Ez diote arazo estrukturalari aurre egiten, albo batera utzi dira ekoizpenaren erregulazioa, merkatuarena eta esnearen balioa.

7. KONPETENTZIA LEGEA

Ezin omen zaio esnari prezio minimorik jarri, konpetentzia legea urratzen baitu. Frantzian, hala ere, nahiz eta lege bidez ez egin, prezio minimoa jarri diote, eta abeltzainen duintasuna bermatu dute.



8. ERREKLAMO PRODUKTU BEZALA ERABILTZEA

Saltoki askotan, esnea 50 zentimo inguruan saltzen dute, eta ikusita esne litroa ekoizteak soilik 30 zentimo balio duela, ezinezkoa da bere salneurri hori izatea. Zein da arrazoia? Saltoki askok erreklamo bezala erabiltzen dute esnea, erosketa saskia merkea dutela erakusteko, eta gainontzeko produktuetan gehiago saltzeko.

Kezka handia Asiar liztorra dela eta




A dituek aspaldi esaten zuten "geratzeko ailegatu dira", eta badirudi hala dela, nahiz eta momentuz, uda ona izan dugula esan ahal. Erlezainen kezka handia da udan zenbait liztor aurkitu dituztelako herri desberdinetan: "Ziaurrizko lagun batek ale bat ekarri zigan galdezka eta Asiarra zela ikusi genuen", esaten digu Belateko erlezain batek, "Arraizko ezagun batek beste bat ekarri eta berriro ere liztor asiarrak zela ikusi genuen, oso kezkatuta gaude hurrengo ziklora begira".

Asiar liztorraren bizi-zikloa udazkenean hasten da erregina berrien jaiotzarekin. Hilabete hauetan lurpe-

ratzen dira, otsail-martxoan aldera ateratzen dira eta arrautzak erruten dituzte: "Orain da liztorrentzat ahu- lezia momentuetako bat, erreginak txikiak baitira, baina oso zaila da habiak aurkitzea, zuhaitzen hostoak direla eta".

Aurtengo udaberri beroa izan denez, asko ugaltu dira dirudi, eta, uda ere beroa izan denez, jateko fruta gozo asko eskuragarri izan dute: "Haien elikaduran fruta ere sartzen denez, gaitz-erdi, badirudi gure erleak ez dituztela gehiegi eraso, baina ziurrenik hurrengo udan jasango ditugu oraingo ondorioak".

Pulunpek 1.000 lagun Sarean



Lagun asko ditugu, begira zeinen ongi! Lagun horiek birtualak dira, horietako asko benetako lagunak badira ere, beste batzuekin ez dugu inoiz ere aurrez aurre hitz egin. Nola da posible hau? Facebook sarearen bitartez. Interneten mundua ezagutzen ez baduzu, ez duzu ezer ulertuko, baina gaian jantzia bazara, ez da inolako albiste arrarorik. Kontua da aldizkariaren sare birtualak 1.000 lagunera ailegatu dela hilabete honetan. Albiste txikia dirudiena, adierazgarria da azaltzeko nola funtzionatzen duten gaur egun komunikabideak.

Gure sareari esker jendeak ateratzen dituen argazki asko lortzen ditugu: pestetan, mendian edota egunerokotasunean jendeak argazkiak egiten ditu, eta, horre-

taz gain, elkarbanatzen ditu eta horiei buruz hitz egiten du: "Herriko plaza orain birtuala da, saltsa bertan baitago". Oso tresna eraginkorra da guretzat: albisteak askotan beste inon baino lehen aurkitu eta kontatzen ditu jendeak, tokian bertan egiten dituzte argazkiak eta gu gainera leku guztietan ezin garenez egon, askoz hobe!

Argazkiak lortu eta, jendearen urtebetetzeak jakiteaz gain, jendeari zer gai interesatzen zaion errazagoa da jakitea, jendeak komunikabide, telebista, ekimen eta beste gai askori buruz hitz egiten baitu, komunikabide handien gaiak sortzeko boterea txikiagotuz.

Gure sare horretan, gainera, ez dago bakarrik eskualdeko jendea, beste mota askotakoa ere badago. Sarean ez dago muga fisikorik, eta horregatik lagun asko ditugu gure muga txikietatik kanpo; batez ere hurbileko bailaretakoak; Sakana, Iruña, Elizondo edo Berako jende asko dago gure sare horretan. Guretzako oso tresna interesgarria da elkarlana sustatzeko, baina argi dago sare sozialek bere alderdi iluna dutela: pribatutasun falta, gizarte kontrola, errealitatean islatzen ez diren jarrerak, jazarpenak... Gure esku dago tresna hauek bakoitzak ahal duen ondoen erabiltzea.

Udako azken pesten bitxikeriak

Txoritxo bat izan dugu aurten pestaz pesta. Gautxoria da, baina goiz eta arratsalde ere ibili da herriz herri, hemendik hona. Bueltatzerakoan, bitxikeria eta pasadizoak belarri-ra xuxurlatzen dizkigu, eta guk zuri hemen idazten dizkizugu.



Aurreko Pulunpen hamaika txorakeria ar-gitaratu genuen pesten inguruan eta antza jendeak gustuko izan ditu, esan diguzuenek. Lehenik eta behin erabaki behar dugu zein izan den udako ekimenen errege/erregina, eta gure ustez argi dago. Aurten Ultzama aldeko pesten erregeak... Puzgarriak izan dira! Eskualdeko herri

gehien-gehienetan jarri dituzte halakoak: esan beharra dago lehen oso garestia zela puzgarriak antolatzea: bi langile egon behar ziren ordu gutxi batzuetarako, baina orain asko merkatu da kontua: 200 bat euroren truke asteburu guztia egon daiteke gaztelu puzgarri bat herriko plazan. Eta konturik hoberena, umeak poz-pozik, eta gurasoak gehiago, be-

raz guztiak konforme. Ez dugu baloratuko janari eta edariaren garrantzia, ezta uda honetako orkestren gorabeherak, bakarrik esatea Mexikortxokoak gogor itzuli direla azkenengo asteetan, eta Anitaren Bilobak taldeak ongi bete duela Aritz eta Amaiairen bikotearen lekua...

Irailean Lantzen izan ziren pestak, baina gure txoria egun horretan ohean geratu zen, eta ez dakigu ezer berezirik. Hurrengoan ote? Hori bai, aurten Iraizotzen bi gauza nahiko berezi izan dituzte: alde batetik 4 erraldoien dantzaldia (nondik atera dira?) eta bestetik Motxila 21 taldearen kontzertua. Motxila 21 taldea musikari ezagun eta Down Sindromea duten gazteen arteko nahas-

tea da, eta hemendik hona eskaintzen dituzte kontzertuak. Eritzen ere pestak izan ziren, eta dakigun bakarra da janaria kanpotik ekarri zutela. Eltzaburun, aldiz, Xulapaingo kodrila bat ekarri zuten klasiko bihurtzen ari den apustu bat egiteko: motozerra edo aizkora, zeinek zatitu lehenago auto bat... Euskal Telebistako albistegian atera zen... Beti bezala, hoberena esportatzen dugu.

Gure udako errepasoarekin bukatzeko, kultura aniztasuna bultzatu zuten Beramendin, Brasilgo Capoeira dantza ikuskizun bat ekarri baitzuten.

Eta badakizu, hurrengo pestetan txoritxo bat ikusten baduzu jirabiraka, kontuz gero egiten duzunarekin!

hau irailaren seian ospatu zen. Goardetxe zenetik hamalau parrokietako gurutzeak aurretik zirela, "jende mordoxka" prozesioan abiatu zela idatzi digute parrokietakoek. "Uharteko gurutzean jende taldea eta parrokietako beste gurutze batzuk elkartu dira.

Letaniak euskaraz abestuz Santutegira iritsi dira. Sarreran han zegoen Mikel Goiaingeruaren irudia gurutze bakoitzari musu eman eta ongi etorri eginenez". Aurten parrokietako hogeita hamaika prozesio gurutze bildu ziren. Horietatik zortzi Basaburukoak eta bost Imozkoak.



Jainkoari eskerrak eman eta beren bekatuak aitortu eta absoluzioa edo barkamena hartzen zuten". Honi "absolbizio eguna" deitzen zitzaion. Aurten egun

Absolbizio eguna 2015

Orain dela hogeitabat urte Larraungo Artziprestazgokoek abuztuaren azken asteburuan Aralarko Santutegira oinez joateko ohitura aldatu zuten, parrokia bakoitzak prozesio gurutzeak eraman zitzaala erabakiz.

U sadio zahar hau, abuztuko azken asteburuan egiten zen, "gure aurrekoek ordurako soro eta alorren uztak bilduxeak zituztenean. Bildutako uztarengatik

Basaburuko landetxeek zer-nolako uda izan dute?



Aurreko Pulunpe prestatzen ari ginenela, udako turismoaren inguruan galdetu genuen eskualdeko jatek, landetxe eta ostatuatan. Orokorrean askok lan asko egin zutela esan baziguten ere, Basaburuko landetxeetan ez zegoen adostasunik. Hurrengo alean bailara honetako landetxeekin baka-

Basaburuko landetxeetara zer bezero mota joaten den galdetuta, gehienek aipatu dute ume txikiekin doan familiak direla bezerorik ohikoena. Hauetaz gain oso ohikoa da Estatu-tuko beste aldeetatik datorren jendea etortzea ere, eta asteburuetan parranda egiteko datozen lagun kodrilak ere. Profil mota bakoitzak bere turismo eredu desberdina du: "Gurean ditugun animaliak eta baratzea bisitatzea gus-

tuko dute familietako askok" esaten digute

Udabeko Balkonpekoek, "jende askok galdetzen digu erreserba egin aurretik hauen inguruan". Esan beharra dago, Udabeko hauek oso uda ona izan dutela. Kanpotik datozenek, aldiz, Gipuzkoa, mendietara edota txango kulturalak egitea gustuko dute, eta tira, parranda egitera datozenek ez dute kanpoaldeko gehiegirik behar...

Berueteko Behe-txoeneakoek sagardotegira bisita eskaintzen dute, baina jendea ez doa landetxera sagardotegia ikustera, "etxean daudela komentatzen diegu bisita egin daitekeela eta jendeak gustuko du", esaten digu Inaziok. Zer gehiago eskaini daitekeen galdetuta, Beruetekoek azpimarratu digute, proiektu berriak behar direla eta adibide bat jarri

digute: "Hemendik hurbil 6-8 trikuharri daude mendian eta lasai asko egin liteke ibilbidetxo bat".

Bertan duguna beste begiekin begiratzearen garrantzia azpimarratzen dute Kaaño etxeok: "Oso garrantzitsua da sare lana egitea eta lortzea jendea bailaran bisitan eta kontsumitzen geratzea", hori bai, Arrarasko etxeok argi utzi dute turismo jasagarriaren aldeko apustua. Ibarneko Bordakoek ildo berean eskatzen dute proiektu berriak eta jasangarriak, adibidez, inguruan dauden xenda batzuk garbitzea.

Basaburuko Garapen Batzordean dabilta Udabeko Balkonpekoak eta orokorrean bizi duten egoera laburbiltzeko esaldi hau bota zuten: "Ideia berriak eta frexkoak behar ditugu aurrera egiteko".

Ekologikoarendako laguntzak



Egunkarietan agertu zen albistea lehenengo aldiz, Nafarroako Gobernuak 100.000 euro baino gehiago emango zituela nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren promoziorako.

"Askorendako albiste bikaina izango da" pentsatu nuen. Egun batzuk geroago albistea lantzen hasi eta honen inguruan inork ezer ez zekiela jabetu nintzen. Ultzamako Nekazaritza Ganbarakoek Iruñera deitzeko esan zidaten, eskualdeko nekazari batzuekin kontaktatu eta ideiarik ez zutela erantzun... Azkenik, CEPAIN deitutako zerbitzuarekin kontaktatu nuen eta argitu zidaten diru-laguntza horiek, momentuz, ekologikoan lan egiten dutenen kontrola eramateko eta ziurtagiriak emateko balioko dutela.

Enrique Arnedok Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa kudeatzen duen kontseiluan lan egiten du: "Beharrezkoak ziren laguntza hauek, baliabideen eskasia

baikenuen: finantzazioa behar da langileak, garraioa, informatika... ordaintzeko". Arnedok dio ekologikoaren ziurtagiriak Europako Arautegiak zehazten dituela eta Kontseilu honek jasotako laguntza horiei esker kontrolak areagotu ahal izango dituztela. Lan egiteko modu hau aukeratzaren pertsonendako diru-laguntzak egongo dira ere: "Landa Eremuaren 2015-2020 Garapen Planaren barruan hartu zuten diru-laguntza zuzenak emateko konpromisoa".

Nahiz eta momentuz askok oraindik albiste honen inguruan gutxi jakin, lehenengo sektoreak duen etorkizuna ikusita, baliteke bat baino gehiagoren interesekoa izatea. Hala espero dugu.

Ikasturtea hasi berri da



Urtero moduan, iraila ailegatu eta oporrak bukatzen dira, mundua bere normaltasunera itzulitzen da eta gure errutinek egunerokotasunaren jabe egiten dira berriz ere. Halere, beti daude berrikuntzak, nobedadeak. Ultzamatik hasita, Larraintzako eskolan aurten oso ikasturte berezia dute, 50. urteurrenaren ekimenak egingo baitituzte.

Oraindik ez dituzte aurkeztu baina hurrengo asteetan jabetuko gara prestatzen ari direnaz.

Basaburuan, Jauntzaratsen badute zer esana ere: urtero bezala irakasle berriak hasi dira lanean eta batekin hitz egin ondoren komentatu digu “oso pozik zegoela, oso giro ona zegoela eskolan” eta sumatzen zuela proiektu politak aurrera eraman

ahal izango direla Oihan zabalen.

Egun bereziei buruz hitz egiten, Kanadako familia baten bisita jaso zuten eskolan; “ohiko” familiaren itxura dute ipar amerikar hauek: gurasoak eta bi alaba nerabe, baina kontua da hemendik hona bidaiatzen bizi direla. “Gustuko dugu gure bizimodua eta normaltasunez eramaten dugu sortzen diren aferak. Alaben hezkuntzan, adibidez, ez dugu arazorik: apunteak eta liburuak Sarearen bidez bidaltzen dizkigute eta azterketak eta lanak itzultzen dizkiegu”, komentatzen zigun familia horretako amak. Alabek bertako egural-

di, ohitura, abesti eta jolasen inguruan bosgarren mailakoekin hitz egiten aritu ziren.

Ikasturtearen hasiera dela-eta Kepa zuzendariarekin hitz egiten egon ginen eta gogoeta interesgarri bat egin zigun: Aizarotzen lehen baino haur gutxiago jaiotzen dira, eta horren ondorioz, izena ematen duten ikasle kopurua jaitsiz doa. Horretaz gain, umeak, nolabait, “batera doaz”, guztiak antzeko denbora tarte batean jaio zirelako, ez dago belaubaldi “ordezkapenik”...

Ba al du etorkizunik eredu honek?

Juan Migel Barberia Huarte hil zaigu

Juan Migel, Iriberriko nagusia, joan den 24an hil zen, gaueko 8etan, istripu baten ondorioz. Juan Migel etxetik hurbil hil zen, oihanean, traktorearekin lanean ari zela. Trunko bat ekartzera joan eta etxera zetoirela, uste denez arbola

bat jo zuen, eta kolpe txarren bat buruan hartu eta hilik gertatu zen. Traktore gainean harrapatu zuten hila.

Juan Migelek, Josu eta Jabierren aita eta alar-gundu berriak, bere 75 urtetan utzi gaitu. Pulunpen partetik gure dolumin bihotzekoenak familia guziari.



Irudi batean



Irratian ere, denboraldi berria



Iraila eta urria artean dena hasten da berriro: lana, eskola eta nola ez, irratia ere. Ez pentsa alde egin dugunik, emititzen egon gara gau eta egun. Esan Erran irrastian udako denboraldia bukatu eta urritik aurrera denboraldi berria hasiko dugu. Iazkoa berrikuntzaz betetako ikasturtea izan zen, aurtengoa egonkortzekoa izanen da. Halere, baditugu berrikuntzak.

Uda honetan emisore berri bat jarri dugu, gure

seinalearen kalitatea eta hedapena hobetzeko. Horregatik, uda honetan, batzuetan irratia ez da ondo entzun, probak egiten ari ginelako.

Tresneria berria izanda ere, gure eskualdearen izaera menditsu eta malkartsuak ez du bermatzen leku guztietan ongi entzutea: ezinezkoa zaigu eskualdeko herri eta etxe guztien irratiara seinalea garbi-garbi eramatea. Halere, ametza.eus webgunearen bitartez po-

siblea da Sarean entzutea gure programazioa anitza munduko edozein lekutan. Horretaz gain, telefono mugikorretan ere posiblea da irratia entzutea, horretarako gure webgunetik aplikazioa jaitsi, instalatu eta poltsikoan eraman dezakezu irratia!

Baliabide teknikoez gain, Esan Erran irrastian bertako informazioa eta hurbiltasuna lantzean sinesten dugu, horregatik astelehenetik ostiralera Egun Ero irratsaioa emi-

titzen jarraituko dugu, Lur Gil eta Iosu Martinezen esku. Goizeko hamarretan hasita, bertako agenda, informazioa, albisteak eta elkarrizketak lantzen dituzte eta horretaz gain, kanpoko albiste interesgarri eta musika berezia ere. Aurten ere iaz esperimintu gisa aurkeztu genuen Irratimaletaren proiektua aurrera eramango dugu; eskola, plaza eta etxeetatik gure irratsaioak eginez.

Egunero konektatuko dugu Nafarroa eta Euskal Herriko irratiarekin egunerokotasunarekin Euskal Herria irratiaren eta Info 7 irratiaren albistegiei esker. Hitzen aniztasuna bermatzeko eta aberastasuna emateko, Arrosa euskal irrati sarearen saio anitzak ere entzungai egongo dira.

Ez ahaztu, Esan Eran irrati, FMaren 107.9an!

Urriaren 10ean Euskal Jaia

Urteroko Atezko Euskal Jaia urriaren 10ean izanen da aurten Aroztegin Euskara ardatz duten beste ekimen batzuk hasi dira bailaran: AEKko euskara klaseak, euskal kantuen taldea, euskal dantza ikastaroa...

Goizetik indartsu hasiko dute eguna, zonaldeko lanbide eta kirolak erakutsiz. Ezta nola egiten den erakutsiko du Santxok eta gero ardiei ileamoztearen erakustaldia ere egonen da. Herri kirolek protagonismo nabarmena izanen dute, aizkora erakustaldia eta arpana txapelketa egingen baita Aroztegiko plazan. Goseari aurre egiteko talo taile-

rrean parte hartu ahalko du jendeak, eta gero jan noski. Hau dena bailarako jendeak erakutsiko du, haien lanbideak baitira.

Bazkaltzeko ordua irisatean, elkartean hartuko dute mokadua. Tortilla eta bizkotxo txapelketan egindakoak izanen dira menua, eta jarraian musika eta jokoak egonen dira haurrendako. “Galba”

jokoa izanen da nagusi, harriekin egiten zen artzain jokoa, Aroztegiara eraman nahi izan dutena haurrek ikasteko. Egunari amaiera emateko dantzaldia elkartean, gorputzak iraun bitartean!

Euskara eta euskal kultura sustatzen

Euskal Jaiarekin ez da amaitzen euskararen aldeko lana Atetzen, hastekoak

baitira euskara klaseak, euskal kantu saioak eta euskal dantza ikastaroak, denak Eritzeagotin.

AEKko euskara klaseak Atezko udaletxean egingen dira, astearte eta ostegunetan 18:30-21:00 tarteko ordutegiarekin. Euskal dantzen ikastaroa asteartean 19:00etatik 20:00etara. Euskal kantuak, azkenik, astelehenetan 18:30etik 19:30era

Emakumeen azoka **Basaburuan**

Basandereok taldeak urriaren 25ean, igandea, eskualdeko emakumeen elkargunea izan nahi duen azoka antolatu du. Azoka honen helburua bailaran aurrera eramaten diren proiektuak ezagutaraztea da, "batzuetan ez jakiteagatik kanpoan bilatzen dugu etxean duguna". Jauntsarasko polikiroldegian goizeko 11etatik aurrera izango dira ikastaroak, erakusketak eta elkartrukeak, "festa giroan". Ekimen eta proiektuen zerrenda bat ere osatu nahi dute. Azokan parte hartuko duten birekin hitz egin dugu:

-AZALDUKO ZENITUZKE LABUR ZURE PROIEKTUAK-EKIMENAK?
-ZAILTASUN ASKO IZAN DITUZU AUERRERA ERAMAN AHAL IZATEKO?
-NOLA IKUSTEN DUZU ZURE BAILARA LANA HEMEN AUERRERA ERAMATEKO? ZER EGIN LITEKE?



Leo Espinosa

Niretzako oso garrantzitsua da taldeka lan egitea, proiektua izugarri aberasten baitu adituekin lan egiteak.

-Ez. Bai Basaburuan bai Imotzen laguntza jaso dugu, Imotzen Etxalekuko elkarteak utzi ziguten eta Basaburuan, aurtan, zeramika egosteko labea erabili dugu.

Beste alde batetik esan beharra dago Imotzen erroldatuak daudenek diru-laguntza jasotzen dutela eta, aurtan izan ezik, Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatekoek baita ere.

-Nahiko zaila ikusten dut. Nik hau dena gustatzen zaidalako egiten dut, honetaz bizitzea ia ezinezkoa ikusten dut. Ez dakit zer egin daitekeen... Bururatzten zait kooperatiba bat sortzeak lagunduko lukeela guztion indarrak elkartuz ziur gauza gehiago egin daitezkeela, edo/eta udalaren inplikazio handiago lortzea,...

-Duela 4 urte hasi nintzen haurrendako arte eta plastika tailerrak ematen. Garai horretan denbora libre dezente nuen, eta bururatu zitzaidan Imozko eta Basaburuko kultur batzordeetan haurrendako ikastaroak eskaintzea. Ni artearen arloan mugitu naiz betidanik eta nire asmo handienetako bat sormena izan da. Teknika guztiak menperatzen ez ditudanez ikastaro bakoitzean laguntza eskatu diot zerbait ekartzen ahal zuen pertsona bati.



Mentxu Isturiz

garbigarriak, kopa menstrualak...) saltzen ditut.

-Zailtasun asko izan ditut, eta ditut gaur egun. Egoera ez da erraza, zergak ordaindu behar, familiarekin kontziliatu nahia... Gainera, nire lana errespetuzko eta beharren oinarritzko hazkuntza batean dago oinarrituta, eta oraindik guraso askok eta gizarteak zailtasun jartzen dute umeek kontakturako duten beharra.

-Bailaran eta inguruan lantxoak egin ditut. Taldeak sortu dira masajea egiteko eta haur-eramaile erabiltzaile dezente daude. Familia askok naturaltasunez onartzen dituzte umeen beharrak. Eskualdea txikia da eta beti mugimenduan nabil: Iruñean batez ere eta Lekunberri, Sakana eta Leitza... Nik lana hemen aurrera ateratzeko, prestakuntza da behar dudana. Askok saiatu gara gauza berriak sortzen beste lanik ez dugulako topatu, baina ez dugu enpresen kudeaketari buruzko jakintzarik... behar duguna da instituzioen laguntza, ez bakarrik ekonomikoa (eta hau ere eskasa da!...).

-Nire proiektua, Xamurki, umeak esperoan edo jaio berriak dituzten familiarekin ikastaroak eta aholkularitza egitea da. Nola erabili haur-eramaile ezberdinak (fular, bandolera, motxilak...) eta saltzea (denda online bat dut www.xamurki.com), haur masajea erakutsi, zeinu hizkuntza umeendako eta emakumeendako, hilerokorako aukera ezberdin, ekologiko eta emakumearen gorputzarekiko errespetuzkoak (konpresa

Batzordeen helburuak

Kultura politiko parte-hartzailea sustatzeko asmoarekin, bailara honetako batzorde batzuen dinamizatzaileen aipua jasotzen ditugu. Informazio guztia Basaburuko Udal Buletinean.



Garapen Batzordea (Xabier Azpirotz)

Gure herriak toki bizi eta dinamikoagoak izan daitezzen, gure haranean dauden errekursoak probestuz, ekonomia endogenoa ahalbideratuko duten proiektu produktibo ausartak bultzatzeko unea heldu dela uste dugu.

zitza eta lana. Kultur batzordearen erronka nagusia parte-hartzea sustatzea izanen da. Kultur eskaintza herri guztietara zabaltzea da Udalaren asmoa, horretarako kontzejuekin lanketa eginez delarik. Antolatzen diren ekimen guztien oinarri euskara eta berdintasuna izanen dira".

Ogasun Batzordea (Bakartxo Ripalda, Nerea Mariezkurrena eta Mari Mar Ansorena)

"Gardentasunaren printzipioari jarraituz, herritarro zuzendurik, Basaburuko ogasunaren txosten informatibo bat egitea da asmoa, aurrekontu parte-hartzaileak bultzatuko ditugu, besteak beste, ditugun aukeren eta egoeraren arabera".

Hirigintza batzordea (Nerea Mariezkurrena eta Esther Lakasta)

"Gaur egun indarrean dagoen plan urbanistikoa duela urte asko egin dagoenez, gai honi helduko diogu lehentasuna emanez. Arau urbanistikoak eta gure bailararen lur antolamendua berrikusi eta hobetu nahi ditugu. Etxe hutsak betetzeko politikak bultzatuko ditugu."

Gizarte Politika (Mari Mar Ansorena eta Aiora Epelde)

"Gaur egun ez dago batzorderik eta lehendabiziko lana batzordea berreskuratzea izanen da. Gizarte babesa oinarritzat bezala hartuta gizarte zerbitzuak bultzatu, dauzkagun baliabideak sendotu eta beste batzuk sortu biztanleen beharrak aztertuta."

Euskara (Esther Lakasta)

"Euskara bertako hizkuntza izanik arlo guztietan normalizatzea izango da helburu nagusia, beste modu batean esanda, bizitzaren arlo zberdinguztietan euskararen presentzia eta erabilera bermatuo nahiko genuke, baita udalaren funtzionamenduan eta batzorde zberdinguztietan ere. Arreta berezia eskolan jarri behar da, gure ustez. Bertako euskara ondare handia dugu eta horregatik zaindu behar dela uste dugu. Euskara modu naturalez jasotzeko aukera izan ez duten herritarrek ezagutu eta goza dezaten ekintzak bultzatuko ditugu."

Kultura eta Gaztedia (Aitor Arangoa)

"Gaztediari dagokionez, Basaburuko gazteen bizi kalitatea areagotzera bideratutako arloak landuko dira, esate baterako aisialdia, etxebi-



Bertso zaharrak Etxalekun

Bertsotarako zaletasun handia izaten zen garai batean. Eta bertsoak ez zirenean, herri kontuak ere hor genituen. Gure aurrekoen kantu guztiak horiek ziren. Orduan ez zen irratirik, ahoz aho barratzen ziren kantuak. Eta, jakina, euskaraz ziren; gehienak bederenik.

Gerra aurea

Gure amak kontatzen du nola Jose Arrizurieta, *Migeleneko* semea eta *Ernatonean* ezkonduarik zegoenak, itsua izanik, etxeko atarian pasatzen zuela egun osoa. Eta bertan, bertso eta kantu, egun guztia kantari aritzen zela. Izugarrizko umorea izakiitsuak! Orain oraintsu ere, amak horrela esaten zidan: *-Iñooooon den kantuk baizaizkin!*

Nik, nire baitan pentsatu izan dut horietakoren batzuk, beharbada, karlisten gerratakoak ere izan zirela, hirugarren karlista-gerra bete-betean

jaio baitzen, 1874. urtean, alegia. Baina, hura joan zen eta haren kantuak ere bai.

Gerra ondorena

1936ko gerra ondoren ere bazen bertsozale-tasunik gure herrian eta baita gure gazte denboran ere. Oraindik orain, ederki gogoan dut ostatutik ateratzean nola aritzen ginen kantari karrikan *Apezeneko* Lontxorekin eta *Zapatiñeneko* Patxi-rekin.

Eta kantu horietatik ene oroimenean karlisten gerrako kantu hau gelditu zait ederki josia:

Iñork galdetzen badu

*IÑORK GALDETZEN BADU,
ESPAÑAN ZER MODU,
ERRESPUESTA NOLA'MAN
NORK JAKINGO DU?
ORAIN GELDITU GERA
EZ OIN TA EZ BURU,
ERREGIÑA SALDU,
DON CARLOS BIALDU,
AL DUBENA KENDU.
MODU HONTAN JENDIA
NOLA XUXENDU!*

*HILLETIKAN HILLERA
KONTRIBUZIUA,
SEMIK HAZITZEKO
ALIBIUA.
ELTZIAN KOIPE GUTXI,
DENDAN OLIUA,
HAU DUK HERIUA,
FALTA BALIUA
PURGATORIUA.
EZ DAKIT NORI EGIN
MALDIZIUA!*



Patxi Erbiti Aldaregia, Etxalekuko Zapatiñeneko semea: Gorputza ez zuen, ba, izugarria, baina bai bihotza. Artzain alai, aurrerakoia, euskaltzalea eta bertsozalea eta esan duguna, bihotz xamurrekoa.

Bertso hauek izugarri gustatzen zitzaizkigun, gehiago oraindik kontuan hartzen badugu, frankismoaren azken urteak zirela eta gutxi edo asko, gehienontzat España, frankismoa... dena loturik zegoela. Subertsio sentimendua zegoen gure bihotzetan.

Esan beharra dago, nahiz gure euskartik zertxobait urrundu, Patxi kantatzen zituen bezala jarri ditudala, *gera, dubena, bialdu eta ez biali*, eta gero, bigarren bertsoko errima guztiak *-iua* egin ditudala.

Gure aurreko euskaldun onek, bazuten izugarrizko trebezia beste toki batzuetako hitz egiteko moduak kopiatzeko. Hitzak eta doinua, alegia. Eta Patxi ere hala egiten zuen eta guk ere bai, ongi gogoan dut *-iua* hori nolako indarrarekin pronuntziatzen genuen, eta baita gainerako hitz guztiak ere. Eta nola, berak kantatzen zituen bezal-bezala kantatzeko gogoia izaten genuen.

Bertsotan ageri diren zenbait hitz:

DUBENA: duena, edo dutena, batuan.

KOIPE: *urina, grasa.*

HERIUA: *Herioa, "La muerte"*

Entendatzeko honako hau ere esan behar: *dendan oliua*, baina erosteko, falta dirua, *baliua*, alegia.

Bertsoaren nondik norakoak

Noizkoak eta norenak diren:

Egun batean hasi nintzen bertso hauen bila eta hara zer topatu nuen Auspoa bertso bilduma ika-ragarrian, Antonio Zabala jesuitak prestatu bi liburutan:

Udarregi bertsolari famatuaz prestatu zuen liburuan, bigarren bertsoa badator baina ez lehen-bizikoa. Eta dio, *Udarregirena* ote den.

Kontu hau garbitzeko, guk bildutako lehen bertsoan datu inportante bat dator noizkoa den jakiteko, *Don Carlos bialdu, Erregiña kendu*, hitz horietan. Noiz izan zen hori? Bai, lehen gerra karlista (1833-1839) bukatu ondoren, Don Carlos V.a erbestera ihesi joan ondoren. Espainian, 1840. urtean izan zen erreboluzio baten ondoren, erregina-orde edo bertsotan esaten den bezala, Erregina, Maria Cristina Borbon, kendu egin zuten. Beraz, bertso hauek 1840ko edo hurbileko hurrengo urteren batekoak dira; beraz, ia 175 urte dute.

Eta noizkoa den azaldu dugunez, hortik ateratzen dugu ez dela *Udarregirena*. Norena ote den? Nik ideiarik ere ez dut, baina *Udarregirena* ez, hau 1829an jaioa baita.

Eta bigarren liburu bat ere aipatu behar dut, Antonio Zabala berak prestatua hau ere: *Karlisten lehenengo gerrateko bertsoak* (Auspoaren sail nagusia, 4 zkia. 1992)

Honetan ere badakar bigarren bertsoa, baina ez lehena. Eta dio, nola Azkuek (Resurrección Maria de Azkue) apez jakintsu eta famatuak bildua zuela baina ez zuela publikatu bere *Cancionero Popular Vasco* lan handian. Hori bai, karlisten lehenbiziko gerrakotzat jo zuen Azkuek; deus gutxiarekin antzeman zion noizkoa izan zitekeen.

Bertso tipoa

Hamaikakoa, txikiaren moldekoa, 7 puntukoa edo 7 errimaduna.

Doinua:

Doinuaren bila ibili naiz Bertsozaleen Elkartearen baina bertso modu horietarako zituzten bost doinu-etatik bat bakarra ez zen egokitzen guk bildutakoari.

Nondik ote zekizkien Patxi

Ba, entzuna genion zerbait berari, baina, hala ere, Juaniko bere anaiari galdetu diogu.

-Noi ikasi zitton bertso hoiek Patxi zenak?

-Donostitik etortzen yittun eizilari batzuk urtero, azaroan o, ollagorreta, ta hemen, tarnan yoten yittun illate guzie. Cristino ta Remigio ziten izena. Haiei ikasie.

Zerbait gehiago jakin nahi, eta Rosamari Ar-tanga, *Marijoaneko* etxeakoandreak eman dio erre-matea, Cristino Ayegi, donostiarra eta bere aita-txiren adiskidea zela esan digunean.

Bi bertso hauek bakarrik ote ziren? Ez, ia seguru, multzoren bat izanen zela baina zokoren batean paperen bat azaltzen ez bada, bi bakarrik beharko dute. Eta, Patxiri esker, bakar-bakarrik zegoenari, laguna paratu diogu.



Don Carlos Borbon. Carlos V.a. Errege hau baino hobea merezi zuten, bai Zumalakarregik eta bai bere (gure) mutilek ere: gure aitatxiren aitatxik, odola isuri zutenek errege, erlijioa eta gure foru edo libertateen alde (Euskal Herriaren libertateak)



Hiztegia

AREAGOTU: GEHIAGOTU.

JAZO: GERTATU.

LEKUKO: TESTIGU

HERIOTZA AGIRIA: DOCUMENTO DE DEFUNCIÓN.

KUPITU: ERRUKITU

OROITZAPEN: RECUERDO

ZORTE: SUERTE

SAKATU: ZAPALDU

KATUA: GATILLO.

“Gizarte guztiaren garaipena da lizentziarena”

Iruñeko Irrintzi dorretik eskualde osoa ikusten da, eta bertako euskaldun guztiei hitz egiten die arratsaldero Txari Eletak. Aldaketa politikoaren sinboloetako bat izan da Euskalerria irratitari lizentzia azkenik ematea. 27 urte luzez egindako borroka eta lanaren uzta azkenik jaso da, eta, horretarako, ez da ahaztu behar UPN boteretik kendu behar izan zela. Irratiaren egoeraz eta beste zenbait konturi buruz hitz egin dugu Txarirekin.

Nola izan zen lizentzia jasotzearena?

Gaur egun, oraindik ez da lizentzia gauzatu, dokumentazio epea irekia dagoelako eta argudioak jasotzeko aukera dagoelako oraindik; baina tira, horretan lanean gaude, azken paperak prestatzen. Halere, azkenik lizentzia eman ziguten papera postari batek ekarri zigun. Nolabait, azken urteotan gizartea nola aldatu den isla izan zen postari horrena: neska gazte euskalduna zen jakinarazpena ekarri ziguna. Gure poztasuna ikusten bera ere poztu zen, eta, gurekin argazki bat egitea proposatu genionean baietz erantzun zuen, bera ere poztu zen! Orokorrean oso pozik gaude, holako albistearekin oportetarik itzultzea sekulakoa da, ez baitzaigu halakorik inoiz gertatu.

Nola sumatuko da “legaltasuna” eguneroko programazioan?

Egunerokotasunean ez da gehiegi sumatuko. Gure asmoa programazioa indartzea da, baina gure lehenengo erronka antena beste leku bat e r a eramatea da. Ezkaba mendi puntan jarri nahi dugu. Gogoratuko duzue arazoak izan genituen antenak direla eta... Orain lizentzia edukita, berriro mendira eramango dugu antena, irratia garbi entzun ahal izatea da oinarritzakoa.

Horren inguruan badakigu guk zer edo zer, beti gaude gaizki entzuten dela edo hobetzen

saiatzen ...

Azken urteetan ez da Iruñerriko leku askotan ongi entzuten. Emisio kalitatea hobetzean, beste arlo asko ditugu hobetzeko: martxan jarri genuen agerkari digitala egonkortzea, programazioa indartzea eduki eta lankide berriekin...

Zer sentipen izan duzue egoera honekin guztiarekin?

Lasaitasuna sentitu dugu, sinbolikoa bada ere... Azkenean gizarte osoaren garaipena da lizentziarena, asko kostatako garaipena, gainera. Lan itzela egin du jende askok urte hauetan guztietan: pentsa, bazkideak, laguntzaileak, urtetan eta urtetan musu-truk kolaboratzen aritu den sarea... Guztion garaipena da zalantzarik gabe.

Festa bat egin zenuten lizentziarena ospatzeko, ezta?

Irailaren 30ean festa bat egin genuen Iruñeko Zentral aretoan kolaboratzaile, lagun eta hiru musika talderekin: The Broken Brothers Brass Band, Demode Quartet, Esne Beltzako Xabi Solano, DZ eta Pini. Halakoak noizbait egin ditugu ere, “Entxuferik gabeko kontzertuak” eta holakoak. Halere, oraintxe ikasturte berriaren hasierarekin gabiltza, Esan Erran irradian entzun ahalko den arratsaldeko saioaren lehenengo egunekin, kolaboratzaileen sarea berreskuratzen...

BADAITEKE ETA... BADEZAKEGU

Euskara gaiztoa



Nostalgia: Igoako 37 haur eta gaztetxo, euskaldun peto-petoak! Gaurko egunean, non ditugu beste honenbeste euskara ederrean ari direnak?

Gaurkoan, Etxalekuko eta beste herri batzuetako zenbait gurasoei eskaini nahi diet.

Euskara gaiztoa! Zer ote dio honek, pentsatuko zenuen honezkero. Ez larritu, ez da beharbada, zuk pentsatu duzuna. Ez dut esaten euskara gaiztoa denik. Euskara gaiztoa *euskara txarraren* sinonimoa da, beste modu batez esanik, esanahi bera du, hau da, euskara gaiztoak edo euskara txarrak gauza berbera esan nahi dute. Literaturan-eta, gehiagotan ikusi dut “*euskara gaiztoa*” erabiltzen bestea baino. Hala ere, biak dira kontzeptu egokiak, ongi erabiliak.

Lehenengo egunean, etxe aurrean aulki batean jarrita, begira nengoen hiru nextato-mutiko plazan nola zebiltzan jostatzen. Eta, disimuluan, haiei kasurik eginen ez banie bezala jokatu nuen, baina esaldi batzuk hartu nizkien eta paperean eskribitu. “Itziartxo, orain hasi behar zara zu!”
 “Ez, joan behar da hori”
 “Zu hasta el fondo”
 “Zu etorri behar zara hona”
 “Joan hasta allá”
 “A ver! Itziartxo, atera!”
 “Egingo dizut berdiña”
 “Ze? Hasi behar naiz ni?”
 “Joan behar da todo lo rápido posible”

“Ni hasten naiz, vale”

Hori dugu euskara txarra edo gaiztoa. Eta hala ere, ni pozik, “euskañolez” ari ziren gutxienez. Ez ziren erdaraz ari. Eta ni zoraturik!

Eta deitu eta joko bat proposatu nien:

-Ea, joko bat egin behar dugu. Nik gauza batzuk esanen dizkizuet, bi modutara, bat ongi eta bestea gaizki. Ulertu duzue? Ba, nik biak esan ondoren, zuek elkarrekin bildu eta ongi esanik dagoena bereizi behar duzue eta, gero, niri esan. Egingen al dugu? Bai pozik egin ere!

Eta harrigarria, beren artean txu-txu-txu eta, hamarretatik hamar asmatu zituzten. Honek zer esan nahi duen? Ondorio franko atera ditut nik, adibidez, beren gurasoek euskaraz egiten dietela ia seguru. Edo, etxean edo auzoan euskaraz aritzeko motibatzen dituztela. Edo, zer nahi duzu esatea, ardo on eta frexkoa aise bereizten dutela ardo mindu eta epeletik, nahiz ardo epeletik edaten duten egunero giroak behartuta.

Euskara ona vs euskara txarra. Ez, ez, euskara txarra edo gaiztoa hobe dugu erdara sana baino. Horixe baietz!

Izan dadila gure egunerokoa, denboraz beharbada, hasiko dira ardo frexkotik edaten! Batez ere guk motibatzen baditugu.

Eutsiko diogu? Euts diezaigun denon artean! Denon esku dago. Bai, bai, zure esku ere bai.



“Hankaz gora du amak mundua”

Langabeziak gurasoengan zein eragina duen aski ongi azalduta dago komunikabideetan, baina haurrei nola eragiten dien? Ikuspegi hori lantzen du liburuxka honek. Dani Martirena eta Ana Ibañez, Erasoko bizilagunek egindako liburuaren izenburua da goikoa. Danik testua egin du, eta Anak ilustrazioak. Testugilearekin hitz egin dugu guk.

Dani, telebistan ibiltzen zarela badakigu, baina liburu bat ere egin duzu Anarekin batera, “Amak hankaz gora du mundua”...

Bai, Ana nire emaztea da, arte ederrak ikasi ditu berak, eta orain arte ez zuen libururik ilustratuta, baina ni langabezian egon nintzela-eta zerbait egin behar horretan, bion artean zerbait egin genezakeela pentsatu genuen.

Hortik aurrera, zenbait istorio idatzi nituen, eta Anari bereziki dei-garria egin zitzaion azkenera argitaratu dugun hau.

Zein da istorio honen gaia?

Langabezian nengoela, langabezia hizpide hartuta, haur batek nola ikus dezakeen horrelako egoera bat; horrela abiatu zen hausnarketa.

Kontatzen dena da langabezian dagoen emakume baten zorigaitza, hipotekaren mamua, bizipozaren galera, telebistaren aurrean egotea torturaren pareko egiten zaio, eta amari gordina egiten zaion hau, alabari kontatuta kasik magikoa egiten zaio, hain hitz arraroetan azalduta zaion errealitate hori.

Anak egindako ilustrazioak ederrak dira!

Liburua nola geratu den ikusita, nik uste dut erakusten duela zer nolako lana dagoen ilustrazio horien atzean.

Baina jatorrizko lana ikusiko bazenute, indar gehiago ikusten da. Ilustrazio bakoitza lientzo bat da berez, bertako irudiak puxkaka margotuta, eta irudiok -josita daude lientzoa egiten duen irudiaren gainean.

Orduan jatorrizkoan hari guztia ikusten da, eta hurrengo orrialdean hariaren arrastoa. Inprimatua nabaritzen da, baina jatorrizkoan are gehiago.



Norbaitek jatorrizko hori ikusi nahiko balu?

Guk autoedizioaren aldeko apustua egin dugu. Jatorrizkoak etxean izan ditugu orain arte, baina joan den astean Iruñeko Txundarata dendara eram genituen, han inprimatutako edizioak salduko baitituzte, eta jatorrizkoak bertan eduki nahi zituzten. Momentuz behintzat Iruñean egonen dira.

Zer lortu nahi duzue haurrengan liburu honen bidez?

Errealitate hau haien begietan agertzea da helburua, ez hausnartzea; baina, langabeziaren arazoa hor dago, helduek era batera bizi dutena, baina haurrek beste era batera. Orduan literatur lana da, sormen lana, haurrei egoera hau azaltzen diena.

Etxegabetzeen kontuarekin antzeko zerbait gertatzen da, haurrei ez zaie behar bezalako arreta eskaintzen kontu hauetan. Etxegabetzeen aurkako plataformako kideei gustatu zitzaion ideia hau, arazo hauek literatur moduan aurkeztea.

Hauteskunde txikiak?

Mundua Kataluniara begira egon da egun hauetan: plebiszitoa, independentzia, gehiengoak, sezesioa, apokalipsia eta halako hitzek gure egunerokotasunean sartu dizkigute egunkari, telebista, irrati eta sarearen bidez. Hauteskundeak pasa ondoren, halere, egunero iluntzen du gau aldean eta errepideak beltz eta txuri daude. Mundua Kataluniara begira zegoen bitartean, Basaburuko Oihanzabal eskolan, hauteskundeak prestatzen ari ziren, haien hauteskunde propioak.



Pulunpe aldizkari unitate mugikorra eskolara bidali genuen aurrekanpainaren jarraipen bat egiteko asmoz. Eraikinaren bigarren solairuan kokatuta dagoen hauteskunde egoitzara ailegatu ginen: ordenagailuz, mahaiz eta jendez betetako gela handi batean zeuden guztiak, lanean, haien alderdien logo eta programak prestatzen, buru-belarri. Hiru alderdi desberdin aurkeztuko dira urriaren lehen astean egingo den hauteskundeetara, eta banan-banan ezagutuko ditugu.

BH Basaburua Hobetuz

Taldeko marketing aditua haiek baino zaharragoa izango balitz esango lieke bizikleta marka eza-gun baten izena zela aukeratutakoa, baina tira, haiendako ez da garrantzitsua, haien helburu argia bailara hobetzea baita. Hauteskundeak irabazteko aukerarik onena haien logoan bilatu dute; oso serio eta polita, hori bai, EH Bilduk duenaren antza susmagarria duena... BHren programari buruz galdetuta, hautagaiek zenbait proposamen interesgarri dituzte, hala nola, kirol klub bat sortzea, jendea bertara joateko eta “dirua izateko”. Ez dakigu momentuz kiroldegietara joatea eta dirua izatearen arteko erlazioa non dagoen bana tira, politikaren magia...

Horretaz gain, errepideak berriro koloreztatzea proposatzen dute, hobeto ikus daitezten. Pulunpeko erredakziotik arazoak aurreikusten dizkiegu etorkizunera begira, grabagailua itzali genuenean anonimatuan mantenduko dugun hautagaietako bat hurrengo deklarazioak egin baitzizkigun: “Dirua lapurtzera etorri gara”.

GHL Gure Herrialdea Lagunduz

Oinarrizko abertzaletasunaren indarra bilatzen du alderdi politiko honek haien izenean; sentimenduen indarra, tripetara zuzenean doan mezuarekin. “Kanpainan lan handia” egiten ari direla deklaratu badigute ere, beste aldetik “estres gutxi kanpaina” izaten ari dela aitortu dute. Aurrekanpaina giroa nabaria zen, hautagaien arteko hika-mikak gerorako utziko ote?

Alderdi honen lan metodoa komisiorena da, bikoteka banatu baitute erantzukizunak: lehenengo bikoteak programa hobetzen ari ziren, aditu batek zenbait zirrikitu aurkitu zizkielako proposamenetan, “gaur sorpresaz harrapatu gaituzue” esan eta aldendu behar izan ginen.

Alderdiaren beste zatiak debate sakon batean murgilduak zeuden eta gustura elkartrukatu zituzten gurekin zenbait kontzeptu: “Nola lagundu Basaburua?” zen behin eta berriz haien buruetatik zebilen zalantza. “Gauza berriak egin behar dira” zioen batek, eta besteak azkar erantzun zion: “Kasino bat eraiki dezagun, La Morea bezalako bat, baina La Morea deitutakoa”. Oinarrizko beharrianak alde batera utzita, beste txorakeria batzuekin hasi ziren: “Medikuen etxea hobetuko al dugu?, hobe igerileku estalia Jauntsaratsen eraikitzea... edota anbulantzia bat jarriko dugu gaixo bat dagoenean hobeto egoteko...” Osasun kontuei buruz hitz egiten ari zirela hurrengo alderdiarengana joan ginen, baina ez genuen zortetik izan.

BEA Basaburua Elkartz Aurrera

Tamalez, ez zuten deklaraziorik egin nahi, “Komunikabideekin ez dugu ezer jakin nahi”. Eta zapore gezi-gozaarekin aldendu ginen kanpainako egoitzatik harrituta ikusiz txikien eta handien hauteskundeak ez direla oso desberdinak...

Atetz eta Ultzama nagusi udako arpana txapelketetan

Herri kirol txapelketez betea dator uda urtero. Kirolari ugari ditugu gurean herri kirolak modalitate ezberdinetan lehiatzen direnak, baina mailarik onena arpanan erakusten dute txapelketaz txapelketa.



Gizonezkoetan Barberena anaien nagusitasuna kolokan jarri zuten sanferminetan Julen Kañamases eta Mikel Eugi ateztarrek. Aroztegi eta Beuntzako bikoteak irabazi zuen Nafarroako txapelketa, Iraizozko Barberena anaien eta Arraiozko Xabier Urrutia eta Daniel Saldiasen aurretik.

Emakumezkoetan, Eltsoko Iraizotz ahizpak bigarren izan ziren. Lezaungo Itziar Nuñez eta Ana Lopez izan ziren txapeldun, Aresoko Itxaso Onsalo eta Lesakako Xanta Sousa hirugarren eta Berako Nerea Sorondo eta Amaia Garcia laugarren.

Euskal Herriko arpana txapelketan ere gure kirolariak izan ziren nagusi. Kasu honetan Ultzaman geratu ziren emakumezkoen eta gizonezkoen txapelak. Bietan ultzamarrak eta bietan senideak suertatu ziren txapeldun: Iraizozko Iñaki eta Josetxo Barberena anaiak eta Eltsoko Ainhoa eta Ana Iraizoz ahizpak.

Emakumezkoetan hiru bikote lehiatu ziren: Nerea Sorondo eta Amaia Garcia beratarak, Itxaso Onsalo aresoarra eta Xanta Sousa lesakarra eta Eltsoko Ainhoa eta Ana Iraizoz ahizpak. Ultzamako bikotea nagusitu zen, 4 minutu eta 43 segundoko denborarekin; Sorondo eta Garcia beratarak izan ziren bigarren (5:04) eta Aresoko Onsalo eta Lesakako Sousa hirugarren (5:20).

Gizonezkoetan sailkapen proban lehenbizikoak, Mikel Eugi eta Julen Kañamases III.a izan ziren, baina finalean bigarren postuarekin konformatu

behar izan zuten. Iñaki eta Josetxo Barberena anaiak 11 minutu, 34 segundo eta 10 ehunen behar izan zituzten proba egiteko. Eugi eta Kañamasesek 22 segundo gehiago behar izan zituzten. Beraz, Nafarroako txapelketako postuak trukatu zituzten Euskal Herrikoan.

Denbora dezente gehiago behar izan zuten ondoren sailkatutakoak: Igor Esnaola eta Santi Aizpurua, Imanol Kañamases eta Oier Kañamases Aroztegiko lehengusuak, Esteban Pikabea eta Martin Pikabea anaiak eta Unai Iraola eta Jokin Garmendia.

Denboraldiari bukaera ezin hobea emanaz, irailaren 19an Elizondon 7 probintzietako txapelketa jokatu zuten. Nafarrak izan ziren nagusi, jokoan ziren hamar txapeletatik bostetan gailendu ziren. Lokotx biltzean, zaku lasterketan, txingetan, sokatiran eta arpanan izan ziren irabazle. Azken kirol honetan, Julen Kañamases eta Mikel Eugi ateztarak izan ziren Nafarroako taldearen ordezkariak, eta bosgarren txapel hori eraman zutenak.

Irailaren 27an, azkenik, Nafarroako arpana txapelketa mistoa jokatu zuten Igantzin. Jule Kañamasesek ez, baina Mikel Eugik txapela eramatea lortu zuen, Aresoko Itxaso Onsalorekin batera. Ultzamarrak izan ziren bigarren, Iraizozko Josetxo Barberena eta Eltsoko Ana Iraizotz, Aroztegiko Julen Kañamases eta Berako Sorondo izan ziren hirugarren.

Zortea aldeko dute beraz gure kirolariek, edo bestela kirol maila bikaina dute Zorionak benetan!

Uharte energetiko bat sortzen ari gara

Meghan Sapp eta Iñigo Aranaren proiektua da "uharte energetikoa". Kaliforniar eta donostiar horiek Oskotz aukeratu dute horretarako. Sistema elektrikotik kanpo biziko dira, haiek sortutako hondakinei probetxua ateraz.

"Uharte energetiko" batean biziko zarete, sare elektrikoaren beharrik gabe, nola iritsi zarete proiektu hau gauzatzera?

Iñigo Arana: Energia berriztagarrien gaian lan egiten genuen, eta hondakinekin zer probetxu atera zitekeen ikertu genuen pixka bat.

Meghan Sapp: Pixka bat? Urtean 200 egun, munduan zehar hitzaldiak ematen ibili gara.

I.A.: Bai, gustatzen zaigun kontua da energia berriztagarrien mundua, bereziki bioerregaiekin lotutakoa. Horrekin hasi ginen lanean proiektu honi begira.

M.S.: Eta bizitza sostengarriago bat eraman zitekeela erakutsi, hondakin asko sortzen baitugu denok, eta dena botatzen dugu. Guk erakutsi nahi genuen hori erabil daitekeela, eta probetxua aterara.

Sistematik kanpo bizitzea bezala izango da, baina bizi kalitatea jaitxi gabe ezta?

I.A.: Hori da, etxe normal batek dituen zerbitzuak izanen ditu. Guk bulegoak izanen ditugu, enpresa bat baitugu, eta elektrizitatea behar dugu; berogailua, ur beroa, wifi sareak...

M.S.: Ziklo bat sortzen dugu energia sortzeko. Zaldiak ditugu, belarra jaten dute, kaka egin, hori berriz ere belarretara, berriz hazi, jan... eta azpiegitura minimo baten bidez honek biogasa sortzen du, berogailurako, ur beroa izateko... behar dugu nerako.

I.A.: Uharte ia totala da, ez soilik elektrizitatearen aldetik. Elikaduraren aldetik ere ia burujabeak gara, haragia, arraina eta abar kenduta, baratzea ere badugulako.

Inbertsio bat egin behar izan duzue baina...

M.S.: Inbertsio bat egin dugu

azpiegitura hau sortzen, material onak erabiltzen etxea isolatzeko... baina garestiagoa da etxera elektrizitate sistema ekartzea.

I.A.: 4 urtetan amortizatuko dugu energiaren aldetik, neurtuta dugu.

M.S.: Guri ez digu eragiten elektrizitatearen prezioa igotzeak (barreak)

Beste hainbat lekutan ere egin liteke honelako zerbait.

M.S.: Erakutsi nahi duguna da edonork egin dezakeela hau, eta diru asko aurreztu. Jende askok dauka ganadua hemen, eta guk 4 zaldirekin egingo badugu, pentsa 100 ardi, 20 behi edo gutxiagorekin ere egin daitekeena.

I.A.: sistema hau ez da soilik etxe soilentzat. Etxebizitza bloke batendako, eta baita herri txiki batendako ere. Herri bat irla energetiko bat izan daiteke, Oskotz, Etxaleku...

Herrikoek zer esan dizute? Erotuta zaudetela?

I.A.: Arraroa iruditzen zitzaion hasieran, baina gustatu zaie egitasmoa. Kuriositatea badute, ikustera etortzen dira, galdetzerak... ikusten dute bidegarria dela hau.

M.S.: Inaugurazioaren hamaiketakoaren espe-roan daude.

Gainera eskualdeko eraikuntza estiloa errespetatu duzue.

I.A.: Argi genuen eskualdean inplikatu nahi genuela. Eskualdeko ingeniari batekin ari gara lanean, eraikuntza enpresa ere ingurukoa da... etxea hemengo estiloan eraikia da, ez du estetika apurtzen. Haize errota ere integratua dago, berdez margotuta, zuhaitzen artean ezkutatuta...



Basaburutik Ayotzinapara

Askok harrituta begiratzen zioten azken egunotan Jauntsaratsen ageri zen pankartari. “Ayotzinapa” irakur zitekeen bertan. Eta eztabaida zegoen Basaburua ote zen, Ultzama, Odieta edo nongo herria ote zen. Inork ez zuen ezagutzen, eta ostatuetako eztabaidetan galetako bat zen hau.



Zehazki hau jartzen zuen: “Urte bat bilatzen. Ayotzinapa. Falta zaizkigu 43... eta gehio!! (...)” Baina zer ote da hau? Azalpena badu: Irailaren 26an urte bat bete gin zuen Mexikoko gertakari batek. 43 ikasle desagertu gin ziren Mexikoko Iguala estatuan, Ayotzinapan. Espekulazioak eta ikerketa ugari izan dira geroztik, baina desagertuta jarraitzen dute urtebete geroago.

Familiei eta Mexiko borrokariari elkartasuna adierazteko ekitaldia egin zuten irailaren 27an Jauntsarasko Oihanzabal ikastetxean. 20-25 lagun bildu ziren, eta bi gai izan zituzten ardatz: Mexikorekiko elkartasuna eta Askapenaen lege kanporatzeailegalizazioa.

Izan ere, 5 urte dira Askapena erakunde internazionalistako 5 kide atxilotu zituztenetik, eta urriaren 19an hasiko da hauen aurkako epaiketa, Askapena lege kanporatzearen ilegalizazioa ere jokoan izanik. Esther Lakasta basaburuko alkateak ere babesa eman zion ekitaldiari, eta igande goizean bertan egon zen. Udalbatzan, gainera, Askapenaren aldeko mozioa onartuegin zuten, Nafarroako beste hainbat herritan egin bezala.

43 aulki hutsik...

Honela zegoen ikastetxea ekitaldia hasi aurretik: 43 aulki hutsik, aurpegi banarekin, desagertutako 43 ikasleen aurpegiekin. Atzean pankarta bat, “Herriak Libre” zioena.

Askapenako kide batek erakundearen egoera azaldu eta erantzun dinamika azaldu zuen: “Ez dugu onartuko internazionalistak izateagatik epaituak izatea, guk epaituko dugu estatua, inperialista izateagatik”. Honela Espainiar estatu inperialistari egiten ari irzaizkion herri epaiketen dinamika azaldu eta urriaren 12an Iruñera bertaratzeko deia egin zuen, “Herri Librean Martxara”.

Ondoren, Aizarozko Gatok, Mexikotik iritsitako ohar bat irakurri zuen, desagertutako 43 ikasleak oroitzuz. Amaitzeko, Mexikortxos taldeak bi abesti jo zituen, ekitaldiari amaiera emateko.

Zapata altxatuta amaitu zuten ekitaldia, Basaburuk sententzia adierazi zion espainiar estatu inperialistari. Mespretxu jarrera baita zapata erakustea, Iraken Bush inbaditzaileari egin bezala, ala Kataluniar parlamentuan David Fernandez, CUP alderdiko parlamentariak Rodrigo Rato bankariari egin bezala.

Euskaraz gara

Aurten ere Mintzabide egitasmoa martxan jarri nahi dugu, euskara praktikatu eta, ahal den neurrian, euskaraz bizi nahi duten euskaldunei bideratuta. Egitasmo hau euskaraz solas egiteko ohitura dutenak solas egiteko ohitura ez dutenekin elkartzean datza, bi hitzetan errateko, euskara erabiltzera bultzatzea.

Euskara maila hobetzea, euskaraz bizi nahi izatea, ikasitakoa ez galtzea edota konfiantza irabaztea arrazoi onak izan daitezke egitasmo honetan parte hartzeko. Gutxieneko konpromisoa astean behin ordubetez biltzea da. Talde txikiak dira, eta, erran beharrik ez dago, parte-hartzea erabat debaldekoa da; bertan arituko garen guztiak gure borondate onenarekin arituko gara.

Euskaraz solas egiteko ohitura dugunok ez ditugu akatsak zuzenduko edo gramatika irakatsiko, horretarako euskaltegiak eta irakasleak baitaude, gure helburua lagun arteko elkarrikketa normal batean parte hartzea izanen da, bertzerik ez.

Parte hartzeko baldintza bakarra, euskaraz komunikatzeko guttieneko maila izatea da, elkarrikketak bermatu ahal izateko.

EUSKARAZ ARAZORIK GABE SOLAS EGITEN DUZUN HORRI: parteka ezazu daukazun zorte hori solas egiteko irrikan dauden horiekin.

EUSKARA ERABILTZEKO OHITURA EDO AUKERA FALTA DUZUN HORRI: egin ezazu erreallitatea behin amestu zenuen hori, alegia, euskaraz solas egitea libre.

Animatuz gero, harremanetan jarri zaitez gurekin Euskara Zerbitzuko telefonoaren bitartez, 948 305134, edo zuzenean telefono honetara deituz 688 648 352

AI AMA! EZ DUT INOIZ LORTUKO!

- Gehiena ulertzen dut, baina hitz egitea pilo bat kostatzen zait.
- Ez naiz ausartzen solas egitera, ridikulua egiteko beldur naiz beti.
- Hasieran bai, seme-alabekin euskaraz aritzen nintzen eta ulertzen nituen egin behar zituzten lanak, baina orain handitzen doaz eta gero eta zailago egiten zait haien martxa jarraitzea.
- Euskaraz hasten naizenean dena ongi pentsatu behar dut eta azkenean blokeatzen naiz.
- Etxean denek egiten dute euskaraz nik izan ezik. Konfiantza falta zait. Gustatuko litzaidake etxean, behinik behin, euskaraz bizitzea.

Horrelako edo bertze modu bateko arazoak badituzu, Mintzabide egitasmoan parte hartu beharko zenuke, berehala nabaritutako duzu gero eta erraztasun gehiago solas egiteko orduan.

EZ DUZULA SINESTEN ... ZUK ZEUK BAI EZTATU.



2015eko abuztua. Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

JAIO TZAK:

ATETZ

Eritzebeiti: Amalur Baztan Sancho, Iban eta Goizargiren alaba, 2015eko abuztuaren 22an, Larrekoetxean.

BASABURUA

Aizarotz: Lur Collado Vigué, Josu Andoni eta Laiaren alaba, 2015eko abuztuaren 27an. Udabe: Lander Franco Elustondo, Manuel eta Ainararen semea, 2015eko abuztuaren 10ean.

LANTZ

Izaro Berdonces Zabaltza, Raul eta Silvia-ren alaba, 2015eko abuztuaren 4an jaioa.

ULTZAMA

Arraitz-Orkin: Unax Beratsain Barbarena, Josu eta Edurneren semea, 2015eko abuztuaren 13an jaioa. Alkotz: Georgeta Constantin Constantin, Gheorghe eta Nataliaren alaba, 2015eko abuztuaren 22an jaioa.

ZORIONAK JAI OBERRIEN GURASOEI!

EZKONTZAK:

IMOTZ

Zarrantz: Ruben Uritz Resano, Iruñekoa, eta Maria Angeles Okiñena Etxeberria, Zarrantzko Karakoetxekoa.

Ezkontza: 2015eko abuztuaren 8an.

Zarrantzen, Goitikoetxean, biziko dira.

ULTZAMA

Auza: Andoni Bertiz Grazenea, Doneztebekoa, eta Ainhua Beratsain Gaskue, Auzako Laurtzenekoa.

Ezkontza: 2015eko abuztuaren 15ean.

Donezteben biziko dira.

URTE, UME ETA ZORIONAK PERRATAKA EZKON BERRIEI!



Ainhua eta Andoni



Amalur



Lur gurasoekin



Lander eta familia



Mari Angeles eta Ruben

Ez zen Mirua, Zapelatza baizik

Jauntsarasko eskolara bidean nengoela, ez dakit nondik ateratzen zen ahots batek asaldatu ninduen: "Oye, oye, ¿qué hago con estos bichitos?". Alde batera eta bestera begiratu eta ez nuen ezer ikusi, baina berriro gauza berarekin hasi zen ahotsa: "¡Los bichitos, los bichitos!".



Auto baten alboan Hego Amerikako tipo txiki batek hurbiltzeko keinuak egiten zizkidan eskuekin. Autora hurbildu eta harridura aurpegiarekin kartoizko kutxa batean zituen hegazti txita batzuk erakutsi zizkidan. Basoan lanean zegoela, botatako zuhaitz batean alboan aurkitu zituen eta laguntzeko ideiarekin, herrira jaitsi.

Horrelaxe hasten zen duela hilabete batzuk hemen agertutako istorioa. Orain bukatu da kontakizuna. Momentuan miru-kumeak ziruditen bikote hori Basaburuko basozainaren esku geratu ziren, eta berak Ilundaingo animalia basatien babeslekura eraman zituen. Hilabete batzuk geroago, bikote horietako ale bat aurrera atera eta berriro ere naturan askatu dute, argazkian ikus daitekeen moduan.

Ilundaingo langile batekin hitz egin genuen, eta kontatu zigun bertan egiten duten lana: "Lehenengo urratsa animalia zauritua badago albatariengana eramatea da, beraiek erabakitzen dute egin beharrekoa". Sendatze fasearen ondoren, modu apropos batean elikatzen dugu, osatu arte: "Behar duten denbora guztia egoten dira".

Aipatu bezala, elikadura zaintzen dute, eta adibidez gabirauetara oilaskoa ematen diote bakarrik. Animalia espezie desberdinen eta pertsonen arteko elkarbizitza ahalik eta gutxien egoten saiatzen dira, "animali basatiak direnez, beraien ingurugiroan ez lukete zertan pertsonarekin egon behar".

Ilundaingo zentro honetan egunero 15 eta 20 animalia artean jasotzen dituzte, "batez ere udan, beste urtarotetan zer edo zer jaisten da lana". Normalean 112 telefono zerbitzutik deitzen dituzte eta haiek zonaldeko basozainekin jartzen dira kontaktuan animalia zauritua jasotzeko. hegaztiak jasotzen dira gehienbat: miru gorri eta beltzak, zapelatza, arra-



noak, belatz gorriak... "Halere ugaztunen bat ere jasotzen dugu", dio zentroko langileak.

Estatistiken arabera, jasotako ena bizirautea lortzen dute. Sendatzen direnak zonaldeko basozainak eraman eta jasotako lekuan askatzen dituzte berriro.

"Abuztu hasieran askatu genuen aurretik hartutakoa, oso azkar osatu eta handitu baitzen". Jasotako bietatik handia zena aurrera atera zen. Basaburuko Xabi basozainak zapelatza zela argitzen digu halere, eta ez mirua, hasieran pentsatzen genuen bezala.

Ultzama eta Basaburuko errepide alboko zutoinetan askotan ikusi ahal izan duzu horietakoren bat, lasai asko pausaturik, inguruneari begira, geldi. Des-kantsatzen dagoela pentsa dezakegun arren, hori da bere ehiza-teknika nagusia, geldi itxarotea harrapakinaren bat begiz jo arte. Ezer ez egitearen teknika hori Espainiako politikariren batetik ikasi duela badirudi ere, badiu jokaera are bitxiagoak: suteetan animaliak ihesean direnean ehizan aritzen omen dira.

Euskal Herrian ia lurralde guztian aurki daiteke, erriberako hainbat txokotan salbu. Izan ere, Euskal Herriko paisaia, egokia da hegazti honentzat eta itsas bazterretik goi-mendietara, eta hegoaldeko zuhaitzietaraino zabaltzen da.

ZORIONAK ZUEI!



Pau



Hegoi



HAIZEA



Nagore, Unai, Tasio eta Amaia



Olatz



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835 Lizaso karikolaregoitz@gmail.com

Sateliteari esker, internetera
konektatu zaitez

22
Mega arte

Senatel
Telecomunicaciones
848 410 500
Sta. Vicenta Maria 14 31012
IRUÑA
info@senatel.es



Internet donde
no llega nadie

¿CREES QUE LLEGARÁN SOLOS
A RECICLARSE? PONLE CABEZA
ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN
KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA
RECICLA TUS RAE* BIRZIKLATU ZURE TEEHak*



Entrega tu viejo aparato en la tienda donde compres el nuevo, o
usa los servicios de tu mancomunidad: el servicio de recogida de
voluminosos (Tel. 948 302 898) o los puntos limpios móviles y
fijos. Consulta en tu mancomunidad

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara,
edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina
handikoen bilketa zerbitzua (Tel. 948 302 898) edo garbigune
mugikorak eta finkoak. Galdetu zure mankomunitatean

*Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos. / *Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

948 423 242 / www.mcp.es

- Instalaciones Solares Térmicas
- Instalaciones Solares Fotovoltaicas
- Calderas y Estufas de Biomasa
- Ahorro y Eficiencia Energética



- Eguzki-instalazio termikoak
- Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
- Biomasa galdarak, berogailuak
eta lurreko suak
- Aurrezki eta eraginkortasun
energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 tedesna@tedesna.com www.tedesna.com



DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

Internet etxean arazorik gabe!

22 Mb-erainoko abiadura, hilean 45,48€
ordainduta. Internetera konektatu, zure
etxearen kokapena arazoa izan gabe.
-Telebista antenen instalazioak eta
konponketak.
-Canal Plus-eko banatzaileak eta
instalatzaileak. Eskaintza bereziak bezero
berrientzat.
-Atezain automatikoak.

Tel: 848 410 500
WWW.SENATEL.ES
info@senatel.es

SENAtel
Telecomunicaciones

URBANIZACION

MONTE ARAÑOTZ

VALLE DE LA ULTZAMA

IRAIZOTZ

PROMOCION DE 6 VIVIENDAS

185.000€ + Iva

